

Euskal AEko BPG %-2,5eko tasaz jaitsi zen 2009ko lehenengo hiruhilekoan


Nazioarteko ekonomiaren bilakaeraz bat, hiruhileko arteko jaitsiera %-1,7 izan da

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko ekonomiak sortutako BPGk %-2,5eko bilakaera erreal negatiboa izan du 2009ko lehenengo hiruhilekoan, 2008ko aldi beraren aldean. Urteko lehen hiruhileko honetan izan da urte arteko lehen hazkunde negatiboa; izan ere 2008ko laugarrenean %+0,4koa eduki genuen.

Hazkundera negatiboa izanik ere, datuok Espainiakoak (%-2,9), Euro 15-eremukoak (%-4,6, Europar Batasunekoak (%-4,4) eta AEBtakoak (%-2,6) baino hobeak dira.

2008ko laugarren hiruhilekoaren aldean, BPGren hiruhilekoen arteko jaitsiera %-1,7 da. Jarraiko bigarren hiruhilekoa da, hiruhilekoen arteko tasa negatiboa dituen. Hiruhileko arteko aldakuntza hori %-1,8 izan da Espainian, %-2,5 27-EBn eta Euro 15ean, %-1,6 AEBn.

1. grafikoa. BPG m/p. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak, Eustat. Estatuko datuak: INE EB-27ko, Euro-15 eremuko eta Estatu Batuetako datuak: EUROSTAT

Sektore eskaintzaileen artean, zerbitzuek (%+0,4) eta lehen sektoreak (%+8,4) hazkunde positiboak izan dituzte; urte artean, industria (%-8,4) eta eraikuntza (%-2,4) jaitsi egin dira. Hiruhileko honetako industriaren jaitsierak eragin handia izan du BPGren bilakaera negatiboan.

Eraikuntzak urte arteko %-2,4ko hazkunde tasa negatiboa izan du; eraikinen azpisektorearen bilakaera negatiboa ez du konpentsatu obra zibilaren bilakaera hobeak.

Zerbitzuek oro har hazkunde positibo apala izan dute, baina merkatuko eta ez-merkatuko zerbitzuen bilakaerak oso ezberdinak izan dira. **Merkatuko zerbitzuek**, industria eta kontsumo pribatuekin lotuta, hazkunde tasa negatiboak dituzte, bai urte artean (%-1,0), bai hiruhileko artean (%-2,7). Erabat bestela, **Ez-merkatuko zerbitzuek** aurreko hiruhilekoetako hazkunde-erritmo biziari eutsi diote, urte artekoa %6,9 delarik.

1. koadroa. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak (*) Euskal AE

	2007	2008	2008				2009
			I	II	III	IV	I
Nekazaritza eta arrantza	9,8	-0,2	5,6	0,2	-6,0	-1,2	8,4
Industria	4,0	0,2	1,7	1,4	0,5	-2,8	-8,4
Eraikuntza	4,6	-0,1	2,3	1,1	-1,0	-2,9	-2,4
Zerbitzuak	4,2	3,3	3,9	3,4	3,2	2,5	0,4
Produktuen gaineko zerga garbiak	3,4	1,5	3,3	2,0	0,7	-0,1	-3,5
BPGda merkatuko preziotan	4,1	2,0	3,2	2,5	1,8	0,4	-2,5

(*) Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat

Eskariaren aldetik azpimarratzekoa da Barne-eskariaren murrizketa, urte arteko %-2,7; kanpo-saldoaren ekarpena positiboa da.

Osagaien arabera aztertuz gero, **Familia-etxeen azken kontsumoak (Kontsumo Pribatua)** %-3,5eko urte arteko hazkunde-tasa negatiboa izan du; aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko hiru puntuko jaitsiera dago; inbertsioarekin batera, barne-eskaria da gehien mantsotzen dena.

Herri Administrazioetako Azken Kontsumoko Gastuak (Kontsumo Publikoak), aurreko hiruhilekoetan bezala, %6,7ko hazkundera izan du.

Kapital Eraketa Gordina (Inbertsioa) ehuneko hiru puntu eta erdiz baino gehiagoz murrizten da aurreko hiruhilekoaren aldean (%-5,8), eraikuntza eta ekipo-ondasunen bilakaerengatik.

2. koadroa. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak (*) Euskal AE

	2007	2008	2008				2009
			I	II	III	IV	I
Etxeguneen azken kontosumoko gastua	3,4	1,1	2,4	1,4	0,9	-0,4	-3,5
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	5,5	5,9	5,9	6,0	5,8	6,1	6,7
Kapital-eraketa gordina	5,5	1,4	3,1	3,0	1,8	-2,2	-5,8
Barne-eskaria	4,4	1,9	3,1	2,5	1,9	0,0	-2,7
Guztizko esportazioak	7,6	4,5	7,0	9,1	6,1	-3,8	-7,5
Guztizko inportazioak	7,6	4,2	6,6	8,4	6,0	-4,2	-7,4
BPGda merkatuko preziotan	4,1	2,0	3,2	2,5	1,8	0,4	-2,5

(*) Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat

Esportazioak guztira %-7,5 jaitsi dira eta **Inportazioak** %-7,4; alegia, gure kanpo-saldoak ekarpen positibo apala egin dio ekonomiaren hazkundeari.

Enplegu landunaz, 2009ko lehen hiruhileko honetan hogeita bat mila enplegu pasa galdu dira; urte arteko enplegu-galera %-2,5 da. Sektore guztietan daude urte arteko bilakaera-tasa negatiboak: eraikuntzan (%-8,5) eta industrian (%-4,8) handienak, eta apalagoak zerbitzuetan (%-0,6) eta lehen sektorean (%-3,0).

BPGk lurralde historikoetan duen bilakaerari dagokionez, 2009ko lehen hiruhilekoan bada alderik: Araban jaitsi da gehien (%-3,5), Gipuzkoan (%-2,5) eta Bizkaian (%-2,2).

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José Javier Aramburu

+Tlf:+34-945-01 75 80 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp